



JARDUNBIDE EGOKIEN GALDETEGIA

Euskaraz irakurtzeko [sakatu hemen](#)

CUESTIONARIO DE BUENAS PRÁCTICAS

Para leer en castellano, [pinchar aquí](#)

KUDEAKETAKO BERDINTASUNERAKO JARDUNBIDE EGOKIAK JASOTZEKO GALDETEGIA

BERDINTASUNAREN JARDUERA EGOKIAK KUDEAKETAN

BERDINTASUNAREN KUDEKETA ARLOKO PRAKTIKAREN IZENBURUA:

ERABILTZAILEEKIN LAN EGITEN DUGU BERDINTASUNAREN ARLOAN

BILATZEN DITUEN HELBURUAK:

Genero-ikuspegia lehentasunezkoa da gure erakundearentzat; berdintasunarekin konprometitutako osasun-erakunde bat gara, eta hari heltzen saiatzen gara ikuspegi ezberdinetatik, artatzen ditugun pertsonekin batera lan eginez. Jardunbide egoki honi dagokionez, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarearen helburua da berdintasunari ekitea hainbat ekintzaren bidez, arreta ematen diegun erabiltzaileekin elkar hartuta, Euskadi erreferente izan dadin emakume eta gizonen berdintasunaren eremuan.

ENTITATE ARDURADUNA:

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea

EMAKUMEZKO LANGILEEN KOPURUA: 800.

Guztiraren gaineko portzentajea: 81,21%

GIZONEZKO LANGILEEN KOPURUA: 185.

Guztiraren gaineko portzentajea: 18,79%

WEBGUNEA: <https://www.osakidetza.euskadi.eus/bizkaiko-osasun-mentaleko-sarearen-ataria/>

JARDUNBIDE EGOKIAN PARTE HARTZEN DUTEN BESTE ENTITATE BATZUK:

Athletic Club Fundazioa, Matazak Indarkeria Sexistaren Aurka

HASIERA DATA: 2019

HARREMANETARAKO PERTSONA : Ainara Berasaluce

HARREMANETARAKO TELEFONOA:607 18 23 58

HARREMANETARAKO E-MAILA: ainara.berasalucemartinez@osakidetza.eus

HITZ GAKOAK: Praktikak harreman handien duen 5 kontzeptuak hurrengoak dira:

X	Estrategia		Enplegarritasuna
	Pertsonak		Maskulinizatutako Sektorea
	Aliantzak		Lanaldiaren murrizketa
	Hornitzaileak		Baimenak
	Erakunde Eredua		Amatasuna eta aitatasuna
	Zeharkakoa		Kontziliazioa Erantzukidea
	Kualitatibo eta kuantitatiboa		Telelana
	Kudeaketa Sistemakoa edo prozesua		Denboraren eta espazioaren antolamendua
	Diagnostikoa		Zaintzak eta bizitzaren iraunkortasuna
X	Berdintasunerako plana		Segurtasuna, Osasuna eta Ongizatea
	Ikerketak eta genero analisiak	X	Bezeroentzako/erabiltzaileentzako arreta
	Estrategian Integrazioa		Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako protokoloa
	Feminizidua		Lan baldintzak
	Genero-indarkeria		Ordainsari-politika
	Jazarpen-puntu beltza		Sailkapen profesionala
	Arriskuaren aurreikustea		Kristalezko sabaia
	Barne komunikazioa		Lidergoa
	Kanpoko Komunikazioa		Parte-hartze
	Komunikazio ez-sexista		Interseksionalitatea, Aniztasuna
	Gardentasuna	X	Genero-ikuspegia
	Publizitatea		Emakume erreferenteen ikusaraztea
X	Nazioarteko egunak: kanpaina 22F, 8M, 25A		Autodefentsa feminista
	Formazioa eta Sentsibilizazioa		Ahalduntzea
	STEAM		LGBTIQ+ politikak
	Mentoretza		Berdintasuneko maskulinitateak
	Pertsonen hautaketa eta barne promozioa		Emakume migratzaileak
			Gizarte Esku-hartzea

ERAKUNDEAREN SEKTOREA:

	Hezkuntza
	Industria eta zerbitzuak
	Bestelakoak
X	Osasun arloa


	Zerbitzu publikoa / Herri administrazioa
	Gizarte zerbitzuak

DESKRIBAPENA:

Osakidetzan 2021-24 aldirako, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana ezarri zen, plana egiteko prozesua 2015ean hasi eta 2020ra arte garatu ondoren. Harrezkero, BOMSek aurrera egin du arlo horretan, adierazitako helburua lortzeko bidea markatu duten ekintzak eta jarduerak txertatuz.

Horren harira, gauza batzuk nabarmendu behar ditugu: Erakundeak Berdintasun Batzordea sortu izana (575/2021 Ebazpena, ekainaren 24koa, eta 668/2021 Ebazpena, irailaren 8koa), Konfidentzialtasun Batzordearen eraketa (831 Ebazpena, azaroaren 19koa), BOMSek berdintasun-erreferente bat izendatzea (673/2021 Ebazpena, irailaren 8koa) eta BOMSeko Genero Indarkeriaren Batzordea sortzea (553/2018 Ebazpena, maiatzaren 25ekoa). Adierazi behar dugu, orobat, Genero Indarkeriaren Batzordearen (GI) jomuga dela arreta ematen diegun emakume erabiltzaileen aurkako genero-indarkeriari heltzea.

Era berean, azpimarratzekoa da, batetik, batzorde horietan egindako lana, bestetik, gure prestakuntza-planetan gai horretan ematen ari garen prestakuntza (ikus 2. taula), eta azkenik, gure intranetean berdintasunari buruz sortu dugun atala (ikus 1. irudia).



1. Irudia: Erakundeko intranetaren *Berdintasun* atala.

2021az goerotik, Berdintasun Batzordea eta haren berdintasun-erreferentea, BOMSen lan egiten duten hainbat pertsonarekin batera, Osakidetzaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana (2021-2024) hedatzen aritzen gara. Eta horri balio erantsia emateko asmoz, erabiltzaileekin ari gara elkarlanean berdintasunaren arloan:

1) Artatzen ditugun emakumeen aldeko esku-hartzeak eramaten ditugu aurrera.

2) Erabiltzaileak sartzen ditugu berdintasunaren arloko ekintzen garapenean.

Jardunbide hau erabiltzaileen artean genero-desberdintasunak murrizteko ekintzak planteatzeko beharretik sortu zen, bai eta genero-ikuspegiarekin lan egitea ere gaixotasun mentalak dituzten emakumeekin, aintzat hartuta gizonen baino estigma handiagoa dutela.

Urteetan garatu dugu praktika hau, pertsona askoren parte-hartzeari esker. Horrenbestez, ekintza-proposamenak egin dituzte Berdintasun Batzordeak, erakundeko profesionalek eta artatzen ditugun emakumeek ere. Ekintza bakoitza modu independentean planifikatu eta landu da, erabiltzaileen beharretara egokituta, arreta ematen den zentro/zerbitzu bakoitzaren ezaugarrietara doituta, eta Berdintasun Plana kontuan hartuta.

ALDERDI BERRITZAILEAK:

Erabiltzaileen onurarako planteatu diren ekintzak berritzaileak izan dira, sormenez garatu dira (*brainstorming*-en bidez), eta erabiltzaileek eta profesionalek hartu dute parte beroietan. Esaten dugu berritzaileak direla erabiltzaileek parte hartu dutelako, eta haiekin batera lan egin dugulako genero-berdintasunaren arloko hainbat ekintzatan, humanizazioan aurrerapausoak emateko asmoz. Horrek guztiak eraldaketa ekarri du lan egiteko moduan eta pertsonen arreta emateko eran. Alde batetik, berrikuntza egin da zerbitzuetan, genero-ikuspegi duen arretaren bidez, eta, bestetik, osasun-arloko profesionalez gain, BOMSentzat funtsezkoak diren interesdunak sartu dira (*stakeholder*): erabiltzaileak; gure arretaren hartzaileak, hain zuzen ere, eta, horrela, parte aktibo eta protagonista bihurtu dira berdintasunaren arloko ekintzak lantzeko orduan; gainera, ingurunearekin harremanetan jartzeko modu berri bat ekarri die.

EMAITZAK (inpaktu positiboak edo ondorio negatiboen murrizketa):

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko (Osakidetza) kategoria ezberdinetako profesionalek hartu dute parte, eta erabiltzaile askok jaso dute haren onura. Izan ere, eragin handia izan du partehartzaileengan: gizarte-kontuetan, asistentzian eta maila pertsonalean. Ekintza ugari jarri dira abian, eta horiek lagundu dute, bai gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna murrizten, bai horiek berdintasun errealago batera eramaten.

Ekintzek autoestimua eta autokontzeptua hobetzen lagundu diete, eta euren buruarenganako konfiantza areagotu dute. Ondorioz, gehiago hartzen dute parte komunitatean, eta, horri esker, gizarte-harreman osasuntsuagoak dituzte. Arrisku-egoerak identifikatzen ikasteak berritzaileak gaixotzea eta arrisku- eta diskriminazio-egoerak prebenitzen laguntzen die emakumeei. Ikusi dugu emakumeek gehiago ahaldundu direla, eta joera handiagoa erakutsi dutela genero-ikuspegiari lotutako ekintzetan parte hartzeko. Bestalde, ekintza horiek pertsonen lagundu die informazio gehiago eskuratzen, eta ezagutza zabalagoa bereganatzen hainbat konturi buruz (nork bere burua zaintzea, sexu-osasuna, ugalketa-osasuna...). Ekimenei esker, emakumeek landu ahal izan dute parte hartu aurretik izan ohi duten kalteberatasun-sentimendua, eta aldi berean, euren beharrianak asebetu.

Hona hemen abiatutako ekintzak:

ARTATZEN DITUGUN EMAKUMEEN ALDEKO ESKU-HARTZEAK:

- 1. Emakume-taldea eta alkoholismoa Barakaldoko Adikzioen Osasun Mentaleko Zentroan:** *Emakumeen eta alkoholaren taldea* zuzenduta dago alkoholaren kontsumoak eragindako arazoak dituzten Ezkerraldeko Eskualdeko osasun mentaleko zentroetan artatutako emakumeei. Oinarrituta dago Marlatt eta Gordon-en (1985) berriro gaixotzeko prebentzio-ereduan. Talde psikoterapeutiko bat da; urritik ekainera egiten da, ostegunetako goizetan, 10:00etatik 12:00etara, eta zentroko psikologo klinikoak zuzentzen du, gizarte-langileak lagunduta (terapeutakide lanetan). Talde bakoitzean 8 emakumek parte hartzen dute. Lantzen diren helburuen artean honako hauek daude: "Pertsonen artean sor daitezkeen genero-diskriminazio egoerak identifikatzen eta jorratzen ikastea", eta "Emakume izatearen estigmaren aurka borrokatzea, eta alkohol-kontsumoagatik arazo bat aurkeztea".
- 2. *Lehen Gertakari Psicotikoetako Emakumeen Taldea:*** 11 emakumez osatutako talde hau sortzeko arrazoia izan zen taldeko emakumeek aisialdiko zenbait jardueratan (berezi kultura- eta kirol-jardueretan) parte hartzeko zituzten zailtasunak: euren konplexu fisikoengatik eta emakume izateak markatutako kanpoko eskakizunengatik (edertasun-kanona, emakumeen gorputzaren sexualizazioa, estereotipoak, emakumea eta osasun mentala, etab.). Zentroko terapeuta okupazionalak gidatzen du taldea, eta bertan emakumeek proposatzen dituzte beren beharren arabera landu beharreko gaiak (erreferente femeninoak eta feminismoaren historia, kirol-esplorazioa eta emakumeentzako baliabideak, hilekoa, eta emakumeek terapiataldeetan parte hartzea, besteak beste).
- 3. *Manueneko eguneko ospitaleko emakumeen taldea:*** 2 gizarte-hezitzaile buru dituen emakumeen taldea hamabostean behin biltzen da. Gaur egun, gurean arreta jasotzen duten 7 erabiltzailek hartzen dute parte, eta hainbat gai lantzen dituzte haien beharren arabera, hala nola:
 - Berdintasunaren eta genero-ikuspegiaren edukiak: taldean bertan sortzen den edozein gai edo informazioa.
 - Autokontzeptua indartzen da: nor naizen, nolakoa naizen, nolakoa izan nahi dudana.
 - Autoestimua indartzen da.
 - Eta abar.
- 4. *Garamendi/Ajuriaguerrako Eguneko Ospitaleko emakumeen taldea:*** emakume-talde bat eratu dute, eta bertan 11 emakume inguruk hartzen dute parte, ostiraletan, 2020tik aurrera. Terapeuta okupazionala da burua, eta erizaina, terapeuta-kide. Taldeak emakumeen

berrizantzen araberako gaiak jorratzen ditu: autozaintza, sexu-osasuna eta ugalketa-osasuna, autoestimua, etab.

5. **Genero-ikuspegia duten erizaintzako esku-hartzeak, substantzien erabilerak eragindako nahasmendua duten pertsonentzat (alkoholismoa eta opioideak):** dirudienez, substantzien erabilerak eragindako nahasmendua duten emakumeen % 80k genero-indarkeria jasaten dute, eta horrek kontsumoari ekitea eta hari eustea sustatzen du, eta, horrekin batera, eraso gehiago jasatea ere (Osakidetza, 2019). Adikzioetan arreta ematen dugun zerbitzuok erakunde eta profesional sare konplexu anitz batean gaude integratuta. Horregatik, gure erakunde erizaintzako profesionalak, genero-ikuspegitik, erantzun jarraitua, koordinatua eta eraginkorra ematen diete emakumeei, zaugarritasun handiagoa izategatik. Hori horrela, esku-hartzeak genero bakoitzaren beharretara egokitzen dira.
6. **Nortasunaren nahasmendu ezegonkor emozionala duten pertsonentzako arreta-programa (TIEP) osasun mentaleko zentroetan (OMZ).** TIEP nahasmendu mental bat da, larria izatera hel daitekeena (psikopatologikoa zein funtzionala), eta emakumeei eragiten die gehien bat. TIEP duten emakumeak bereziki kalteberak dira abusuzko eta tratu txarreko harremanei dagokienez, eta gainera, nahasmenduari elkartutako estigma handia izan ohi dute. TIEP duten pertsonentzako arreta espezifikoa EAEko Osasun Mentaleko Aholku Batzordearen jarraibideetan dago jasota, eta Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarearen (BOMS) gomendioei jarraituz, lehentasunezko arreta ematen zaie OMZetan. TIEP programak berariazko tratamendua eskaintzen dio patologia horri. Gaur egun, programaren erabiltzaileen % 91 emakumeak dira.
7. **Genero-ikuspegia duen multikirola-jarduera Athletic Club Fundazioarekin:** 2019an sortu zen, eta BOMSen egindako hausnarketa baten emaitza da. Duela 25 urtetik parte hartzen ari ginen erabiltzaileentzako areto-futboleko liga batean, eta hartan hasieratik heldu genion genero-ikuspegiari, partaidetza mistoa bultzatuz. Hala ere, konturatu ginen emakume askok beren burua baztertzeko zutela, futbolarekiko zaletasunik ez zutelako. Horregatik, multikirola-jarduera sortu genuen, emakumeen lehentasunak txertatzeko asmoz, eta horrelako jarduerak egiteak dituen onurak jasotzeko, aintzat hartuta tresna inklusibo bat dela horren kaltebera den kolektibo batentzat. Halatan, ekitatearen eta berdintasunaren printzipioetan oinarrituta, Athletic Club Fundazioari Multikirola Proiektua proposatu genion. 2021eko ekitaldian, 27 saio egin ziren astearen, eta BOMSeko 22 zerbitzuek parte hartzen zuten (1-2 saio, 11 hilabetez). Guztira, 1215 saio izan ziren. Athletic Club Fundazioarekin sinatutako hitzarmenaren harira, gurean arreta jasotzen duten 106 emakumek hartu dute parte kirol-jarduerotan.

BERDINTASUNAREN ARLOKO EKINTZAK, ERABILTZAILEAK KONTUAN HARTUTA:

Berdintasun Batzordeak hainbat ekintza bultzatu ditu. Erabiltzaileak kontuan hartuta, berdintasun-ekintzei dagokienez, hainbat kanpaina bultzatu dira:

1. **Otsailaren 11, "Emakumearen eta Neskaren Nazioarteko Eguna Zientzian":** 2022an, argazki-lehiaketa egin zuen BOMSek, "Emakumearen eta neskaren nazioarteko eguna zientzian" gaiaren inguruan. Lehiaketara eguneko ospitaleetako profesional eta erabiltzaileak aurkeztu ziren. Guztira, 42 erabiltzailek hartu zuten parte.
2. **Martxoak 8, "Emakumearen Nazioarteko Eguna".** Martxoaren 8ko astean, 2021az geroztik, eguneko ospitaleetan berdintasunari buruzko hainbat dinamika lantzen dira urtero, martxoaren 8a zergatik ospatzen den azaltzeko. Ondoren, gaiari eztabaida bat antolatzen da, zerbitzuetako erabiltzaileen iritzia jasotzeko, eta M8ari lotutako gizarte-mugimenduan parte hartzeko gonbidapena egiten da. Profesionalek eta erabiltzaileek parte hartu zuten (24 pertsona guztira).
3. **Azaroaren 25a, "Emakumearen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna":** 2022an, BOMSek txapa moreak helarazi zizkien langile eta erabiltzaileei, eta elkarlanean aritu ginen Indarkeria Sexistaren Aurkako Matazekin. Erabiltzaileek eta profesionalak Elkartearen matazak erabili zituzten indarkeria sexistaren arazoa ikusarazteko. Bestalde, egutegian nabarmendutako beste egun batzuetan bezala, analisi bat egiten dugu elkarrekin profesional eta erabiltzaileok; eta azaroaren 25eko historia eta ospakizunaren zergatiaren berri emateaz gain, gaiarekin zerikusirik duen jardueraren bat egiten da. Era berean, zentroak apaintzen dituzte lankidetzan (100 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten).

KUDEAKETAN INTEGRATUA:

Jardunbide egoki hau lerrokatu dago erakundearen politikarekin eta estrategiarekin. Izan ere, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarearen 2022-2025 Plan Estrategikoaren barruan kokatu da, Hirugarren erronkan, hain zuzen ere: **"Berdintasunean eta genero-ikuspegiaren aurrera egitea"** ekintzan.

Jardunbidea bat dator Osakidetzaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planarekin (2021-2024), plan horren plangintzaren eta ebaluazioaren baitan. Lau hilean behingo jarraipena eta urteko ebaluazioa egiten da, hobekuntzak ezartzeko asmoz.

Berdintasun Batzordeak eta erabiltzaileekin lan egiten duten Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko profesionalak, batzordeak babestuta, zeharkako ekintzak egiten dituzte etengabe.

Berdintasun-planaren eta egindako ekintzen zabalkundeak egiten dugu: erakundearen barruan (intranet, email, jardunaldiak, buletina eta abar.), eta kanpoan ere (LinkedIn-en, jardunaldietan eta biltzarretan, adibidez).

Jardunaldi eta biltzarretan egindako zabalkundearen barruan, 7 emakumek aurkeztutako ponentzia/komunikazio hauek nabarmendu nahi ditugu (ikusi 1. taula):

TXOSTENAREN IZENBURA	EKITALDIA	TOKIA ETA EGUNA
<i>Perspectiva forense de la ley de violencia de género. Instrumentos de valoración de riesgos</i>	BOMSek eta Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuak antolatuta. BOMSeko Genero Indarkeriaren Batzordearen 10. Bilera	Bilbo, 2021eko martxoaren 9a
<i>Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Osakidetzaren I. Plana</i>	<i>Elkarrekin ikasten</i> (Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarearen jardunaldia)	Bilbao, 2021eko urriaren 28a
<i>Sensibilidad de género en los planes de Salud Mental.</i>	Osasun Mentaleko Erizaintzaren XXXIX. Biltzar Nazionala	Iruñea, 2022ko apirilaren 6tik 8ra
<i>Comisión de Violencia de género en la Red de Salud Mental de Bizkaia</i> - <i>La necesidad de su creación, 2018</i> - <i>Un ejemplo de su efectividad en nuestra Organización.</i>	Genero Indarkeriari buruzko X. jardunaldiak: <i>Reconocer para reparar, reparar para recuperar la salud.</i>	Bilbo, 2022eko maiatzaren 13a Euskalduna Jauregia
<i>Avances de la Comisión de violencia de género:</i> - <i>La necesidad de su creación, 2018.</i> - <i>Un ejemplo de su efectividad en nuestra Organización, 2021</i>	<i>Elkarrekin ikasten</i> jardunaldia	Bilbo, 2022ko urriaren 26a

1. Taula. Jardunaldi eta biltzarretan egindako zabalkundeak

Sare sozialetan egiten dugun zabalkundeari dagokionez, helbide hauetan kontsulta daitezke LinkedIn-en argitaratutako albiste batzuk:

- https://www.linkedin.com/posts/red-de-salud-mental-de-bizkaia-bizkaiko-osasun-mentaleko-sarea-osakidetza-la-rsmb-colabora-activamente-para-mostrar-activity-7001898631125450752-1zuw?utm_source=share&utm_medium=member_desktop

- https://www.linkedin.com/posts/red-de-salud-mental-de-bizkaia-bizkaiko-osasun-mentaleko-sarea-osakidetza_25n-activity-7004003441232502785-R0fn?utm_source=share&utm_medium=member_desktop

Era berean, bai Berdintasun Batzordeak, bai Genero Indarkeriaren Batzordeak lagundu dute prestakuntza aurrera eramaten eta materiala prestatzen. Prestakuntza dela eta, zuzendaritza-talde osoak jaso du berdintasunaren gaineko prestakuntza. Bestalde, berdintasunaren arloko etengabeko prestakuntza eskaintzen diegu Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko profesionaleri (ikusi 2. taula).

FORMACIÓN EN IGUALDAD 2021-2023					
Organización	Título curso	Ediciones	Hombres	Mujeres	TOTAL
RSMB	Interculturalidad y VG	3	3	57	60
	Difusión de la guía de VG	36	89	423	512
O. Central	Abordaje de la violencia de género para profesionales de la salud en Osakidetza	2	1	19	20
	Acercándonos a la igualdad de mujeres y hombres	12	21	219	220
	Capacitación para la gestión del Plan de Igualdad de Osakidetza	8	2	18	20
	Curso de especialización en intervención en situaciones de Violencia Machista	1	0	11	11
	Formación en materia de igualdad de mujeres y hombres y para la perspectiva de género. Personal directivo_síncrono	1	2	3	5
	Formación en materia de igualdad de mujeres y hombres. Mandos intermedios_síncrono	4	6	26	32
	Fundamentos generales de la violencia de género	9	16	123	139
	Guía de actuación ante la violencia de género y las agresiones sexuales en Euskadi	1	0	1	1
	Interculturalidad y violencia de género	4	0	6	6
	Malestares de género y salud	4	0	13	13
	Masculinidad y violencia machista	2	3	1	4
	Masculinidad, igualdad y cambio de valores_síncrono	4	5	1	6
	Protocolo frente acoso sexual y por razón de sexo en Osakidetza	1	1	5	6
	Violencia contra las mujeres: curso básico	3	2	26	28
	X Jornada sobre violencia de género: Reconocer para reparar, reparar para recuperar la salud	1	0	23	23
	TOTALES		96	151	975
			13,65%	88,16%	

2. Taula. Berdintasun alorreko prestakuntza BOMSen

Prestakuntzaren barruan, nabarmenduko dugu Osakidetzaren genero-indarkeriaren gida zabaltzeko egindako prestakuntza, zeinetan 500 pertsonak baino gehiagok hartu duten parte (ikusi 2. taula).

Aipatutako ekintzek ez dute etenik, helburu baitugu berdintasuna iraunkortasunez sustatzea denboraren joanean.

ERAGINKORRA:

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea osasun-erakunde publiko bat da, eta urtero aurrekontu-partida jakin bat du esleituta. Egindako jarduerak ez dute kostu gehigarririk, erakundeak berak dituen giza baliabideekin eta bitarteko materialekin gauzatzen baitira.


PARTE-HARTZEA ETA PRAKTIKAREN IRISMENA:

Jardunbide egoki honetan, erakundearen hainbat zentro eta zerbitzutan burutu diren ekintzak sartu ditugu. Horietan 400 partehartzaile baino gehiago izan dira (profesionalak eta erabiltzaileak). Arreta ematen diegun emakumeei begirako esku-hartzeei dagokienez, 274 emakumek baino gehiagok hartu dute parte.

Emandako prestakuntzaz, azpimarratu behar dugu zabala izan dela, eta bertan 975 emakumek eta 151 gizonek parte hartu dutela. Gainera, zientzia-ekitaldietan, 7 emakumek egin dute berdintasunari buruzko zabalkundea.

DOKUMENTATUA:

Pantaila-irudi hauetan bildu ditugu egindako ekintza batzuk:



2. irudia

CONCEPCION MORENO CALVETE

Osakidetza EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO OSASUN-BALIA DEPARTAMENTO DE SALUD

Red de Salud Mental de Bizkaia Mapa Web Ayuda Buscar en este sitio Castellano | Euskera

Quiénes Somos Profesionales Salud Recursos Docencia e Investigación Comunicación TIC CCEC-BPSO Innovación Coronavirus Plan Estratégico 2022-2026 Igualdad

> es > Noticias > Día internacional de la Mujer y la Niña en la ciencia en el HD de Durango

Día internacional de la Mujer y la Niña en la ciencia en el HD de Durango

13/02/2023

Con motivo del día internacional de la Mujer y la Niña en la ciencia en el HD de Durango se ha realizado un poster. En él han participado todas las personas que acuden al dispositivo. Durante toda la semana y ayudándose siempre entre ellas y ellos, cada persona ha buscado una mujer científica a destacar a lo largo de la historia. Han buscado su foto y leído su historia y logros. Han diseñado un poster que ha sido colgado en la pared del hospital de día, para que no quede en el olvido lo que aquellas mujeres lograron y lo que aún queda por conseguir.

3. irudia

Osakidetza EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO OSASUN-BALIA DEPARTAMENTO DE SALUD

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea Web Mapa Laguntza Bilatu gure honetan

Nor gara Profesionalak Osasuna Baliabideak Irakaskuntza eta Ikerkuntza Komunikazioa IKT CCEC-BPSO Berrikuntza Koronabirus 2022-2026 Plan Estrategikoa Berdintasuna Hizkera argia


> Dokumentuen bilatzalea > noticias > Emakumearen Nazioarteko Eguna (martxoak 8) ospatzeko ekimena

Emakumearen Nazioarteko Eguna (martxoak 8) ospatzeko ekimena

2022/03/08

Emakumearen Nazioarteko Egunean (martxoak 8), Durango eguneko ospitaleko erabiltzaileek egindako ekimena erakutsi nahi dizuegu. Berdintasunaren aldeko emakumearen borrokaaren sinbolo gisa xingola more handia osatu dute erabiltzaileek. Bertan aipatu dute beraien bizitzan garrantzitsua izan den emakumezko erreferente bat.

4. irudia



5. irudia

6.

ARRAKASTA-FAKTOREA:

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean lan egiten duten pertsonak berdintasunarekiko eta genero-ikuspegiarekiko konpromiso handia duten profesionalak dira, eta lagundu digute jardunbide egoki hau aurrera eramaten. Bestalde, Zuzendaritzaren laguntza ere izan dugu, eta horrek erraztu digu erakundeko baliabideak eskura izatea, hura behar bezala garatzeko. Bestalde, erabiltzaileen laguntzari esker, euren premiei eta lehentasunei erantzun ahal diegu, eta aukera dugu genero-ikuspegia ere haiekin lantzeko. Era berean, kanpoko erakundeekin aliantzak sortu izanak balioa erantsia eman die ekintzei.

Kanpo-eragileen partaidetzari esker, ekintza batzuk eraman ditugu aurrera berdintasunaren alorrean.

TRANSFERIGARRITASUNA:

Jardunbide egoki hau osasun-arloko edozein erakunde publiko zein pribatutan aplika daiteke. Osasun-arazo bat duten pertsonak artatzen dituen edozein ingurunetan errepika daiteke; hala ere, gomendatzen dugu jarduerok erabiltzaileen behar eta lehentasunetara egokitzea.

IKASKUNTZA:

Erabiltzaileen parte-hartzeak, alde batetik, bermatzen du emakumearengan eta haren beharrezanetan oinarritutako arreta eskaini ahal izatea, eta bestetik, sustatzen du erabiltzaileekin ezartzen dugun harreman terapeutikoa beren arreta-prozesuan (euren autoestimuan eta estigman eragiten). Egiaztatu dugu haiek ekintzetan parte hartzea eta lankidetzan aritzea esperientzia positiboa dela partehartzaile guztientzat.



Etorkizunari begira, pentsatzen ari gara zerbait espezifikoa lantzea artatzen ditugun gizonekin batera, haiek ere inplika daitezten berdintasun handiagoko gizarte baterako eraldaketa horretan.

PRAKTIKA AKREDITATZEN DUEN MATERIALA:

Jarraian, erantsi ditugu burututako eta arestian deskribatutako jarduera batzuen adibideak.

Anexo 1. 25N




25 de noviembre

¿QUÉ TIENE DE ESPECIAL ÉSTE DÍA?



EMAKUMEENGA
INDARKERIARI EZ



NO A LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES

- **El Día Internacional de la Eliminación de la Violencia contra la Mujer** se conmemora anualmente el 25 de noviembre para denunciar la violencia que se ejerce sobre las mujeres en todo el mundo y reclamar políticas en todos los países para su erradicación.

¿por qué el 25 de noviembre?

- ▶ La fecha para celebrar el Día Internacional de la Eliminación de la Violencia contra la Mujer no se escogió al azar. El 25 de noviembre recuerda el brutal asesinato de **Patricia, Minerva y María Teresa Mirabal, tres activistas dominicanas que fueron brutalmente asesinadas el 25 de noviembre de 1960.**
- ▶ Para no olvidar tan lamentable día, desde el **Primer Encuentro Feminista Latinoamericano, celebrado en 1981**, se fijó este día para tratar de concienciar y sensibilizar a la población acerca del problema. La **Asamblea General de la Organización de las Naciones Unidas** se adhirió a la iniciativa en 1993. Ese día declaró el 25-N el **Día Internacional contra la Violencia de Género.**



¿por qué el color morado?

Aunque hay algunas personas que afirman que el color del movimiento -morado- se toma por ser **una mezcla del rosa y el azul. Estos eran tonos históricamente designados para diferenciar a los sexos, y con el morado que se pretendía evidenciar la igualdad entre los mismos.**

El 8 de marzo de 1875, cientos de mujeres trabajadoras de una fábrica de textiles de Nueva York marcharon por las calles contra los bajos salarios, menos de la mitad de lo que cobraban los hombres. Esa jornada **terminó con 120 mujeres muertas por la brutalidad policial** y provocó que las trabajadoras fundaran el primer sindicato femenino.



El **25 de marzo de 1911**, tuvo lugar nuevamente uno de los mayores desastres de la industria en Estados Unidos. **146 trabajadoras murieron en un gran incendio de una fábrica textil a causa de derrumbes, quemaduras e intoxicación por humo y otras se suicidaron al no tener escapatoria.**

Los responsables de esas muertes fueron los propietarios de la fábrica Triangle Shirtwaist, que **habían sellado las puertas de las escaleras y de la salidas para evitar que las empleadas robaran.**



Según lo relatado en los medios de comunicación de la época, **fue el propio dueño de la fábrica el que le metió fuego al inmueble. Ardieron todas las camisas que estaban produciendo, que al ser de un color morado emitieron un denso humo de esta tonalidad que tiñó el cielo de la ciudad neoyorquina.**



Estás sufriendo violencia contra las mujeres si...

- **Sufres o has sufrido violencia por parte de tu pareja o expareja.** Violencia no solo son las agresiones físicas o sexuales. También estás sufriendo violencia si sientes que tu pareja o expareja:
 - Te controla:** te llama, te envía SMS o correos electrónicos constantemente; te controla mediante WhatsApp o revisa tus perfiles en redes sociales; te exige explicaciones sobre dónde y con quién vas o sobre qué haces o dices; te controla el dinero; o controla cómo vistes y te pide que te cambies de ropa cuando no le gusta.
 - Te aísla:** no le gusta que tengas amistades, no quiere que veas a tu familia, o te desprecia delante de otras personas, te grita y recrimina constantemente diciendo que la culpa es tuya y que siempre te equivocas.
 - Te intimida:** le tienes miedo, te insulta o te humilla, te amenaza con suicidarse o quedarse con tus hijas e hijos, te retiene documentación importante como el pasaporte o libretas bancarias, te obliga a hacer cosas que no quieres, te chantajea, etc.
 - Te priva de apoyo** que necesitas para comer, con la medicación, para tu aseo personal, para tus transferencias, etc.
- Sufres o has sufrido **violencia física, psicológica o sexual** por parte de algún hombre de tu familia, que no sea tu pareja o expareja.
- Eres o has sido **víctima de algún delito contra la libertad sexual:** agresión sexual, abuso sexual, acoso sexual, exhibicionismo y provocación sexual, prostitución forzada, explotación sexual, corrupción de menores y mutilación genital femenina, trata de mujeres y niñas, matrimonios forzados, esterilización forzada...
- Si tienes alguna **discapacidad** y has sufrido tanto violencia física, psicológica o sexual como malos cuidados o falta de cuidados por parte de un compañero de piso o residencia, cuidador, tutor, personal sanitario...
- Si sientes que **en tu entorno de trabajo** te acosan sexualmente o por ser mujer.

Siete cosas que pueden hacer los hombres para prevenir y combatir la violencia de género

- ▶ Identifica y denuncia toda agresión física o verbal hacia las mujeres de la que seas testigo, sea cual sea el entorno en el que te encuentres. **Justificar actitudes inapropiadas y creer que en fiestas, bares o discotecas “todo vale” agrava el problema.**
- ▶ Si sospechas que alguna mujer que conoces es **víctima de la violencia de género**, dialoga con ella y ofrécele tu ayuda.
- ▶ Si percibes que tu amigo, compañero, hermano es **abusivo o agresivo con las mujeres**, invítale a buscar atención profesional.

Siete cosas que pueden hacer los hombres para prevenir y combatir la violencia de género

- ▶ Párate un segundo y mira hacia dentro. **Se conocen muchos casos de violencias sexuales hacia las mujeres, pero muy pocos hombres se reconocen como agresores.** Es lo que se llama el "agresor fantasma" y ocurre, sobre todo, a la hora de identificar en uno mismo los tipos de violencia más normalizados (piropos inadecuados, comentarios sexuales fuera de lugar, insistencia a la hora de ligar, etc.)
- ▶ La lucha contra la violencia machista es un problema social que tiene su origen en las desigualdades de género. Tú también desempeñas un papel fundamental a la hora de **sensibilizar a otros hombres** sobre la importancia de desterrar la desigualdad para convertirnos en promotores de la equidad

Siete cosas que pueden hacer los hombres para prevenir y combatir la violencia de género

- ▶ Si rechazas consumir revistas que cosifican a la mujer, si no acudes a los locales en los que ellas no pagan entrada, o explicas a tus amigos que si creen en la igualdad de género (lo sepan o no) son feministas, te estarás solidarizando con las mujeres en la lucha por sus derechos.
- ▶ **Desmárcate también de chistes y comentarios machistas** que, lejos de ser inofensivos, perpetúan el sexismo presente en el imaginario colectivo y visibilizan a las mujeres como personas débiles sometidas a la fortaleza de los hombres.

El 97% de las mujeres ha sufrido algún tipo de violencia sexual en contextos de ocio nocturno





FUENTES:



Anexo 2. 8M



LA HISTORIA SE REMONTA A HACE MÁS DE 100 AÑOS, CONCRETAMENTE EL 8 DE MARZO DE 1875, CUANDO CIENTOS DE MUJERES TRABAJADORAS DE UNA FÁBRICA DE TEXTILES DE NUEVA YORK MARCHARON POR LAS CALLES CONTRA LOS BAJOS SALARIOS, MENOS DE LA MITAD DE LO QUE COBRABAN LOS HOMBRES. ESA JORNADA TERMINÓ CON 120 MUJERES MUERTAS POR LA BRUTALIDAD POLICIAL Y PROVOCÓ QUE LAS TRABAJADORAS FUNDARAN EL PRIMER SINDICATO FEMENINO.



EL 25 DE MARZO DE 1911, TUVO LUGAR NUEVAMENTE UNO DE LOS MAYORES DESASTRES DE LA INDUSTRIA EN ESTADOS UNIDOS. 146 TRABAJADORAS MURIERON EN UN GRAN INCENDIO DE UNA FÁBRICA TEXTIL A CAUSA DE DERRUMBES, QUEMADURAS E INTOXICACIÓN POR HUMO Y OTRAS SE SUICIDARON AL NO TENER ESCAPATORIA. LOS RESPONSABLES DE ESAS MUERTES FUERON LOS PROPIETARIOS DE LA FÁBRICA TRIANGLE SHIRTWAIST, QUE HABÍAN SELLADO LAS PUERTAS DE LAS ESCALERAS Y DE LA SALIDAS PARA EVITAR QUE LAS EMPLEADAS ROBARAN.



NO FUE HASTA 1909 CUANDO SE CELEBRÓ POR PRIMERA VEZ EL DÍA DE LAS MUJERES SOCIALISTAS EN EEUU, UN 28 DE FEBRERO. EN 1910, LA II CONFERENCIA INTERNACIONAL DE MUJERES SOCIALISTAS ESTABLECIÓ EL 8 DE MARZO COMO DÍA INTERNACIONAL DE LA MUJER TRABAJADORA.

LA FEMINISTA RUSA ALEXANDRA KOLLONTAI, QUE ENTRE OTRAS COSAS LOGRÓ EL VOTO PARA LA MUJER O LA LEGALIDAD DEL DIVORCIO, CONSIGUIÓ ESTABLECER EL 8 DE MARZO COMO LA FIESTA OFICIAL EN LA UNIÓN SOVIÉTICA.



EN ESPAÑA COMENZÓ A CONMEMORARSE EN 1936 Y
LA ONU OFICIALIZÓ ESTA FECHA EN 1975.



¿HAY RAZONES PARA SEGUIR LA LUCHA...?

LOS DATOS MÁS RECIENTES DE LA ONU:

- 2.700 MILLONES DE MUJERES NO PUEDEN ACCEDER A LAS MISMAS OPCIONES LABORALES QUE LOS HOMBRES.
- EN 2019, MENOS DEL 25% DE LOS PARLAMENTARIOS ERAN MUJERES.
- UNA DE CADA TRES MUJERES SIGUE SUFRIENDO VIOLENCIA DE GÉNERO.
- DE LAS 500 PERSONAS EN PUESTOS DE JEFATURA EJECUTIVA QUE LIDERAN LAS EMPRESAS CON MAYORES INGRESOS EN EL MUNDO, MENOS DEL 7% SON MUJERES.
- EN LOS 92 AÑOS DE HISTORIA QUE TIENEN LOS PREMIOS OSCAR, SÓLO CINCO MUJERES HAN SIDO NOMINADAS EN LA CATEGORÍA DE MEJOR DIRECTOR; DE LAS CINCO, SÓLO UNA GANÓ EL PREMIO (KATHRYN BIGELOW).
- Y HASTA 2086 NO SE CERRARÁ LA BRECHA SALARIAL SI NO SE CONTRARRESTA LA TENDENCIA ACTUAL.



Seamos valientes, luchemos, vivamos! 



Hoy también es 8 DE MARZO

Y mañana. Todos los días son 8 de marzo. Porque todos los días hay motivos más que suficientes para no perder de vista la lucha por la igualdad. Una tarea de todos y todas que debemos afrontar de forma decidida y transversal.

